

Kanpamentuetako egunerokotasuna

■ Saharako errefuxiatuen bizitzari begirada, Asier Bastidaren irudien bidez

Lasarte-Oriako Udalaren eta Euskal Fondon elkar lanari esker, Saharako errefuxiatuen egunerokotasuna aztertzeko aukera dago Manuel Lekuona Kultur etxean, *Amets bat erakitzen* erakusketaren bidez.

Iaz erakusketa Lasarte-Orian egon bazen ere, ez zen Asier Bastida argazkigilearen iritzia eta esperientzia ezagutzeko aukera egon.

Astearte goizean, berriz, erakusketaren irekiera ekitaldian, udal ordezkariaren aurrean Bastidak azalpen ugari eskaini zituen.

Argazkigilearen hitzetan, erakusketa hau "ez da denuntzia. Sahararen egunerokotasunaren isla izatea nahi nuen."

Egileak azaldu duenez, ez dira argazki topikoak. "Ez nituen bertan hain ikusiak diren irudiak errepikatu nahi," esan zuen Asier Bastidak.

31 irudi, erretratuak eta paisaiak, koloretan, zein zuri-beltzean. Bastidak azpimarratu duenez, "ni erosoago sentitzen naiz zuri-beltzean lan egiten, baina argazki batzuk koloreetan izan behar zirela iruditu zitzaidan, argia eta kontrasteak ikusteko."

Erakusketaren helburua egilearen aburuz, argazkiak aztertu eta hausnarketa sortzea da. Eta horretarako aukera egongo da hilaren 27a arte.

Bisitak

Era berean, Iñaki Mujika alkate ordeak aipatu zuenez, Lasarte-Oriako ikastoletako gazteak eta elkarte ezberdinak ere errefuxiatuen munduan sartuko dira egingo diren bisitei esker.

Izan ere, "erakusketa interesgarria da, bertako egoera ulertzeko," adierazi zuen alkate ordeak.



Asier Bastida argazkilaria Saharako egoera azaldu zion udal ordezkariari.

Zubi tabernako oroitzapen eta bitxikeriak

Aurreko zenbakian argitaratu genuen bezala, Jesus Mari Zubizarretak eta Isabel Urrestarazuk erretiroa hartu eta Zubi tabernak atek itxi ditu. Lehengo ostegunean, haiekin bildu eta solasean egon ginen. Taberna betetzeko adina oroitzapen dituztela esan eta horietako batzuk kontatu zizkiguten. /4

Euskal kantak errepasatzen

Aitorren hizkuntz zaharra, Sarri-Sarri, Aitormena edo Kontrapasa izan ziren asteazkenean Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan entzun ziren doinuetako batzuk. Lasarteoriatarren iradokizunak jarraituz, pianoa bertsotan jarri zuten Jagoba Astiazaranek eta Ainhoa Ansak. Baina protagonista publikoa zen eta honek ederki parte hartu zuen. Hasieran, papertxo batean bi euskal abesti idatzi zituzten eta, saioan zehar, doinuak kantatu. Gainera, behin baino gehiagotan, konpromezu larrian jarri zituzten abeslariak, hala nola, Gatiburen *Bang-Bang txiki-txiki* Bang-Bang eskatuaz. •



GIZARTEA /3

Down Sindromea duen herritarra udal zerbitzuetan hasiko da lanean

IKASTAROA /5

Jantzi tradizionalen ikastaroa abian

KIROLA /6

Patxi Fadrique prest lehenengoz Donostia-Behobian parte hartzeko

ETXARRI DIGITAL
943361484 Nagusia 17 LASARTE-ORIA



KIOSKO DIGITALA

Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN
KARRETEEN errebelatua ORDU BETEAN
EZKONTZETAKO erreportajeak
ESTUDIOKO erreportajeak
makina DIGITALAK
30X90 neurrirainoko ANPLIAZIO DIGITALAK
GEURE MARKOAK JARTZEN DITUGU

Gabonetarako, opari aproposa daukagu edonorentzat!



Neure kabuz



Konkistatzaileen bizilaguna

Etorkizuneko udaletxe berriko bizilaguna naiz, gertu gertukoa. Udaletxea, zelai berdeak eta dorre altuak izango omen ditu inguruan gure etxeak. Nire buruan irudikatu ezin dudan parajea behin baino gehiagotan planoetan ikusarazi diot nire buruari. Lasarte-Oria.org web orrian zintzilikatu zituzten dokumentuen eta bideoen aurkezpenean arro azaldu ziren herriko agintari "gorenak". Paradoxa bakarra planteatuko dut oraingoan: hainbeste urtetan nire iritziz utzia izan duzuen herri erdigunearen konkistan zabilizate.

Konkista urbanistikoa eta ekonomikoa; neurri gabekoa.

Orain ordea "politik" geratuko den zonaldeko beste kaltetu hurbil bat naiz; hurbil hurbila (askotan grua altuak daramatzen xafiak errazarekin ikutu ahal izateraino). Badira hilabete batzuk txikitze lanetan hasiak direla. Txikitze lanetan diot, orain arte besterik ikusi eta pairatu ez dudalako. Anbulategiko parkeko zuhaitzak errukirik gabe txikitu zenituzten lehenengo, irudi benetan gogorak. Ondoren soberan zenituzten horma, iturri, farola, frontoi eta eraikuntza denak bota zenituzten. Orain langileak txingurri ikusterainoko zuloa egiteko txikizio lanetan zabilizate.

Kaltetu sentimentala izatetik, kaltetu fisiko izatera igaro naiz.

Badira hilabete batzuk bezar, etxeko leihoak eguneko ordu luzeetan ireki ezin ditugula. Gehienetan zarata jasan ezina delako eta beste askotan airean hautsa besterik ez dugulako. Eguneko ordu luze hauek eguerdian 50 minutuko atsedena izaten dute normalean, eta goizeko hasiera ordua maiz errespetatu ez dutela amonuz adierazi nahi dut, ez delako urruna goizeko 07:20etan grua zaleari deidarka aritu ginen larunbata.

Ulerzten orain zergatik bizi ditudan amonuz etxe inguruko txikizioak? Ba badituzte arrazoi gehiago, baina hurrengo baterako utziko ditut, gure etxea ere dirudienez hurrengo baterako utzia dutelako.

Aina Lasa

Zorion-agurrak



Manuel eta Maite

Zorionak zuen ezkontzako 37. Urteurrenean. Muxu bat eta ondo pasa Juan Mariren partetik



Nerea

Zorionak markesa! Ondo pasa parrandetan!



Gaizka

Ongi etorri etxera! Zorionak bikote familiarren partetik.



Saioa

Zorionak zure 9.urtebetetzean. Xabier, guraso eta aitona-amoneren partetik.



Haizea

Zorionak polita familia eta lagunaren partetik. 19 muxu.



Koro

Zorionak bost txapel-dunen partetik. Muxu handi bat.



Aitor

Zorionak Aitor! Zure arreba Eider eta etxe-koen partetik! 9 muxu potolo!



Hugo

Zorionak pottoko familiararen partetik. Txokomarrubizko lau muxu potolo!



Nahuel

Zorionak Puma! Muxuak zure 1. urtebetetzean gurasoen eta zure arreba Sayenen partetik



Enara

Zorionak!!! Muxu handi bat gurasoen eta June, zure aizpatxoaren partetik.

Guardiak

Astelehena, 9

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteartea, 10

Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Asteazkena, 11

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Osteguna, 12

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Ostirala, 6

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Larunbata, 7

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Igandea, 8

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• 80 metro karratuko etxea alokatzen dut Lasarte-Orian. Harremanetarako zenbakia, 628 904 130.

• Etxebizitza alokatzen da Sasoe-ta auzoan. 2 logela ditu eta altzariekin dago. Abala eskatzen da. Telf: 649 526 766.

• Pisua salgai Iruran. 3 gela, komuna, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Berogailua eta armairu enpotratuak ditu. Telf.: 695 785 153.

Lan-eskaintzak

• 14 urteko gaztetxo batentzako piano irakasle bat behar da. Telf: 656 647 599

• Aisialdirako begiraleak behar dira, astean bitan, Donostian eskola batean euskarako klaseak emateko. Interesatu egonez gero, kurrikuluma honako helbidera bidali mldonostia@mondra-gonlingua.com

• Pertsona baten bila gabiltza astean bi egunetan etxeko lanak egiteko. Harremanetarako telefonoa 635 745351 da. Arratsaldean deitu.

Lan-eskariak

• Emakume euskaldun eskaintzen da gaixok edo adineko pertsonak zaintzeko. Urte askoko esperientzia eta ordu-tegi zabalarekin. Ostiral arratsaldeak eta asteburuetan ez. Gauak egiteko ere prestatu, (30 euro gaua). Gaiorantzean prezio ekonomikoa. Tel.: 687 348223.

• Ingeleseko magisteritzako 3. Mailako ikaslea naiz eta lehen hezkuntzako zein DBHko lehenengo zikloko ikasleei klaseak emateko prest nago (ingelese edo beste ikasgai batzuk). Interesatuak deitu zenbaki honetara, 943372874/635720017 Urzti

Bestelakoak

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatu bazu de maketa bat entzungai daukat. Harremanetarako zenbakia, 690 784 113.

Oharrak jartzeko:

www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

txintxarri@txintxarri.info • Tel.: 943 366858 • Geltoki 4

Jaiotzak

Irene Pérez Hernández, urriaren 3 In
Joane Lizaso Ibarlucea, urriaren 3 In

Heriotzak

Jose Luis Macazaga Beloqui, urriaren 30ean 78 urte zituela
Vicente Marrahi Albert, urriaren 17an 88 urte zituela

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055

Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kirolegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Aurrera pausuak ematen

■ Lasarte-Oriako Udalak eta Atzegik sinatu duten hitzarmenari esker, Down Syndromea duen herritar bat udal zerbitzuetan egongo da lanean

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udalak eta Atzegik lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten asteazkenean.

Ana Urchueguia alkateak eta Jose Luis Basoko Atzegiko ordezkariak sinatutakoari esker, Jon Roncero, Down Syndromea duen gazte lasarteoriatarra urtebete izango da udal zerbitzuetan laguntzen.

Helburua gizartea adimen urritasuna duten pertsonen izan ditzaketen balore eta ahalmenez jabetzea da.

Eta, aldi berean, aukerak ematen zaizkie beren inguruan eta herriaren egunerokotasunean modu aktiboan parte-hartzeko.

Esperientzia berria

Down Syndromea duten pertsonak lan munduan txertatzen duen esperientzia berria da hau. Basoko jaunak azaldu duen bezala, "Down Syndromea duen pertsonen Gureak-en lan paregabea egiten dute, baina hau, pertsona hauen egoera gizartean finkatzeko aurrera pausua ematea da."

Ana Urchueguiaren hitzetan, "Udalak espero du eredu gisa ere balio izatea beste ins-



Jose Luis Basoko, Atzegiko ordezkaria, Ana Urchueguia Lasarte-Oriako alkatea eta Jon Roncero sinadura ekitaldian.

tituzio eta enpresa batzuek antzeko esperientziei atek irekitzeko."

Atzegiko ordezkariak, azaldu duen bezala, "Jonen generazioa izan zen lehena ikastolara joaten eta orain, lan munduan egiten dugun esperientzia pilotu honetan ere parte hartuko du."

Esperientziak urtebeteko iraupena izango du eta astelehenetik aurrera bere eginkizu-

netan ikusi ahaliko dugu Jon. Alkateak esan duen bezala, "besteak bezala lan egitea eskatuko diogu."

Eginkizunak

Jonen lana bi ataletan banatuko da, Udal kiroledegian eta Kultur etxean. Bietan lan administratiiboak egingo ditu eta, honetaz gain, laguntzaile lanak egingo ditu kiroledegian monitoreekin eta kultur etxean liburutegian.

Udalak jakin arazi duenez, Kulturako eta Kiroletako sailak aukeratu ditu herritarrekin harreman gehien izan ahaliko duen sailak direlako.

Honetaz gain, aipatu behar da Udalak ekimen hau zabaldu nahi duela eta Atzegirekin lanean ari dela beste bi akordio sinatzeko bi pertsona laguntzaile bezala sartzeko Zentro Zibikoan eta Udaletxean. •

BATEA OPERAZIOA

Rafa Diez lasarteoriatarraren atxiloketa berretsi du Garzonek

Urriaren 13an, Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Rufino Etxeberria, Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez, Txeluri Moreno, Miren Zabaleta, Ainara Oiz, Amaia Esnal eta Mañel Serra atxilotu zituen Poliziak.

Rufino Etxeberria, Txeluri Moreno, Ainara Oiz, Amaia Esnal eta Mañel Serra aske utzi zituzten, fidantza ordainduta kasu batzuetan.

Asteartean, berriz, Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak Rafa Diez, Arnaldo Otegi, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto espetxeratzeko erabakia berretsi egin du, defentsen helegiteak atzera botata.

Atxiloketek eginkizun publikoekin edo politikoekin zerikusirik ez dutela adierazi du epaileak, "ETA erakunde terroristak sortu, garatu eta zuzendutako organo bateko kide izatearekin" duela lotura.

Auzia instrukzio atalean dagoenez, erabakiak hartzeko zantzuak nahikoa direla azaldu du Garzonek, "Bateragunearen izatea, funtzioak, jardunak eta bilerak egiaztatuta daude, bai eta inputatuen parte-hartzea ere." •

4 urte arteko haurrentzako dantza garaikidea

Urtean zehar garatzen ari den Lasarte-Oria Dantzan zirkuituaren baitan, *Da Te Danza* konpainiak *Tondo Redondo* lana eskainiko du gaur, arratsaldeko 17:00etan, Manuel Lekuona kultur etxean.

Oraingo honetan, 4 urte arteko haurrei zuzendutako dantza garaikideko obra bat eskainiko dute.

Objektu biribilak abiapuntutzat hartuta, bizitzaren zikloa kontatzen du lanak.

Ikuskizunean mugimenduek, musika eta soinuek sortzen dituzten irudi eta sentazioek, txikiekin zuzeneko komunikazioa lortzea dute helburu.

Oholtzan

Haurrak oholtzan egongo dira eserita eta guraso edo laguntzaile bat egongo da ume bakoitzarekin. Horregatik, saioa modu egokian ikusteko haur kopurua berrogeira murriztuko da.

Gainontzeko helduek besaulki-patioan esertzeko aukera izango dute ikuskizunaz gozatzeko.



Sarrera doakoa izango da haurrentzako eta helduek sei euro ordaindu beharko dituzte.

Lasarte-Oria Dantzan

Tondo Redondo lana *Lasarte-Oria Dantzan 2009* egitasmoa azken emanaldia dugu.

Orain arte, dantzaren estilo

ezberdinak, klasikoa, break-dancea edo dantza garaikidea, ikusi ahal izan dira kultur etxeko emanaldietan.

Izan ere, programa honen helburua dantza sustatu eta zabaltzea da eta, era berean, interes orokorreko diziplina bihurtzea. •



Prosalus eta Udalaren elkarlana ikusgai

Asteartetik hasita eta datorren azaroaren 20ra arte, kultur etxeko kafetegira hurbiltzen diren herritarrek informazio-taula batzuk ikusi ahaliko dituzte.

Gizarte Zerbitzuetako Kooperazio atalari aurrera darman sentsibilizazio ildoaren baitan, Udalak eta Prosalus GKEak garapenerako egiten duten lanari buruzko informazioa ematen da hauetan.

Eta ekimenaren helburua herritarrei informazioa ema-

tea denez, azaroaren 20aren ostean, informazio-taulak modu ibiltarian jarriko dira ikusgai zenbait ikastetxetan eta, beharbada, udaletxean bertan.

Hitzaldia

Era berean, azaroak 10, asteartean, bi erakundeek elkarrekin aurrera eramandako proiektuak eta lan ildoak azaltzeko hitzaldia izango da Manuel Lekuona kultur etxean arratsaldeko 19:30ean. •

‘Egin beharrekoa egin dugu’

■ Berrogeita hamar urte hauetako, oroitzapen eta anekdota mordoa dituzte Zubi tabernako Jesus Mari eta Isabelek, “taberna betetzeko adinakoak”

Nerea EIZAGIRRE

Hurrengo urtean, 50 urte egingo zituenu. Lasarte-Oria herriaren eta, batez ere, erdialdearen eraldaketaren testigu izan da. Bere ormek ezin dute hitz egin, baina hainbat kontu esango lituzkete galdetuz gero. Horregatik, bere atek itxi baino lehen Zubi tabernara egin genuen, bertako Jesus Mari Zubizarreta eta Isabel Urrestarazu solasaldia izateko.

“Elkarrizketa hau herritarrei eginez gero, politagoa izango litzake,” esan digu Isabelek elkarrizketa hasi baino lehen.

Erretiroa hartzeko unea iritsi zaie eta zera diote “momentu onean goaz, horrela gertatu da, ez da aurrez pentsatutako gauza izan. Aukera izan dugu eta listo.”

Seme-alabei proposamena egin zietela aipatu digute, “taberna nahi zuten bezala jartzeko aukera zutela esan genien eta ezetza eman zuten. Hirugarren generazioa da, aita eta ama nola ibili diren ikusi dute...”

Lehenengo urteak

Lehenengo hamar urteetan, Jesus Mari Zubizarretaren gurasoak hasi ziren tabernarekin.

“Orduan, txikitatik lan egiten genuen eta Jesus Marik gurasoei laguntzen zien,” azaldu digu Isabelek.

Jesus Marik dioenez, Gipuzkoa mailan lehenengo-

ak izan ziren 4:30ak aldera irekitzen. “Orduan, goizero hamahiru kamioi gelditzen ziren hemen aurrean ibilbidea hasi baino lehen. Kafea, kopa, purua eta errepidea,” aipatu digu eta “Michelingo 30 edo 40 langile 6:00etan lanera sartu baino lehen, kafesnea hartzera etortzen ziren eta irterekoan berdin,” gaineratu du.

Aitaren zorrotasuna ere azpimarratzen dute, “guztiak antolatua egon behar zuen eta lanari aurre hartu behar zitzaion. Honela, kafea aterata egoten zen, ez da orain bezala, jendeak eskatzerakoan ateratzen duzula,” azaldu digu Isabelek.

Eta urte horietakoa dugu lehengo anekdota. “Taberna ireki zenean jendeak bertara ezin zela sartu zioen, ez da hartzen zenuen ikusten zelako. Orduan, taberna guztiak itxiak ziren eta gurea izan zen lehena kristalera handia izaten,” azaldu du Jesus Marik.

Aitzindari

Eta senar-emazteak aipatutakoaren arabera, aitzindari izan zen Zubi taberna gauza askotan.

“Kafetegia izateaz gain, gozotegia ere bazen. Lasarteko lehenengo izozkiak saldu genituen, baita errege-opilak ere. Orduan okindegiekin ez zituzten saltzen. Ondorioz, errege egunerako eskaera pila izaten genituen, goizean goiz haien bila joan, tabernako mahai guztiak bete eta jen-



Zubi tabernako lehen urteko argazkia, bertan Zubizarreta familiko aita eta semeak.

Arg: Jesus Mari Zubizarreta.

deari banatzen joan. Gero pixkanaka okindegietan, dendatan... eta ez zen normala taberna batean erostea beraz utzi genuen.

Horretaz gain, ogia, pastak, urdaiazpikoa, bokatak, bonboiak, erregaliza, etab. saltzen zituztela esan digute.

Gabonetan zestak zozketa-tzen zituztela, Gabonetako loterian behin baino gehiagotan zerbait lortu dutela ere, adierazi digute.

Gaupasak eta jaiak

Aurten urterik tristeena izan dela ere azpimarratu dute, “jaiak Okendotik kanpora era-

man dituzte, Santa Anako parodia eta azoka, Lasarte-Oria bai! Krosa. Tristura handia sartu zitzaigun, esate baterako, San Pedro egunean 22:00etan itxi genuenean.”

Eta honela antzinako San Pedroei eta gazteen gaupasei Plazan buruz hitz egin digute.

“Giroa zegoenean, tabernan ere giro ederra egoten zen. Lan pila egin behar genuen, baina nik dantzaxo bat egitera joaten nintzen plazara,” onartu digu Isabelek.

“San Pedroetan hemen sokamuturra egoten zen, urte haietan garai hori izaten zen hoberena. Taberna betetzen zen eta gustura ibiltzen ginen lanean,” jarraitu du.

Honetaz gain, jaietan ez ezik igandeetan ere giroa egoten zela aipatu digute. “Oken-don lehen dantzaldia zegoen igandeetan. Batzuetan ez genuen ezta bazkaltzeko tarterik ere. 14:30ean etxera igo eta 16:00etan dantzaldia hasi baino lehen ireki behar genuen. Lehen jendeak gehiago poteatzen zuen eta igande osoa pasatzen zuten, gaueko hamarrak arte,” esan digu

Gainera, goizetan irekitzen lehen taberna zenez, herriko gazteak gaupasa egin ostean, bertara joaten ziren.

“Hemen gazte generazio asko ikusi ditu. Orain leku gehiago daude irekiak, baina lehen hona etortzen ziren besteak ixterakoan. Gure adinarekin haien gurasoak genituen,” esan digu Isabelek eta honela jarraitu du, “batzuk loreak hartzen zituz-

ten hor aurrean genuen lorategitik, bat amarentzat eta beste niri ematen zizkidaten.”

Baina hori bakarrik ez, “mendira joan edo autobusa hartu baino lehen hemendik pasatzen ziren gazteak,” aipatu du Isabelek.

Eta, gainera, hitz onak besterik ez ditu bertan lanean ibili diren neska eta mutilen buruz.

Bizipenak

Anekdota eta oroitzapen pila dituzte, kristalak hautsi, areto-futboleko lehenengo txapelketak, hasierako komuna *Gure etxearekin* partekatua, kafetera zaharra edo diskoen makina.

Horretaz gain, gauza pila bizi dituzte herritarrekin, Franco garaia, hil ondorengo egunak, demokrazia, Michelingo grebak... eta “esan ezin direnak.”

Negar asko ere egin dutela onartu du Isabelek, “lagun asko joan da oso gaztea. Gainera, taberna baina, solasaldiak izateko lekua izan da. Eguneroko pertsonekin hitz egin eta hareman laguntasun bihurtu da urteen buruan.”

Azken astea, jendea agurtzen pasa dute. Goibel agertzen dira berrogeita hamar urte hauetako lana atzean utziko dutelako.

Baina, “egin beharrekoa egin dugu. Orain, lehen egin ezin genituen gauzak egongo ditugu, terraza batean eseri, kultur etxeko antzerki lan bat ikusi, kalean lasai ibiltzea eta asteburuaz gozatu,” onartu du Isabelek. •



Jesus Marik eta Isabelek berrogeita hamar urte hauetako oroitzapen eta xelbrekeria ugari kontatu zizkiguten.

Amaia Martinez, jantzi tradizionalen ikastaroko partehartzailea

‘Jantzi ikastaroa bikaina izan zen, errepikatzekoa’

■ Asteartean Jantzien Ikastaroa jarri zuen abian berriro Ttakun Elkarteak ■ Iaz bezala, euskal jantzi tradizionala egiteko edo bainikazko apaindurak sortzeko aukera izango da

Ttakun Elkarteak berriro euskal jantzi tradizionalak egiteko ikastaroa eskainiko du iaz izan zuen arrakastaren ostean. Amaia Martinezek bere soineko dotorea josi zuen iazko ikastaroan eta pozik da lortutako emaitzarekin. Ondo pasa eta asko ikasi zuelakoan, aurten ere errepikatu egingo du Ione Artolak ematen duen ikastaroan. Astearte eta ostegunetan biltzen dira arratsaldeko 3etatik 5etara Erribera kaleko lokalean.

TXINTXARRI

Aurreko urtean jantzi tradizionalak egiten ikastaroan izan zinen, nolakoa izan da esperientzia?

Oso polita eta interesgarria izan zen. Baserritar jantziei buruzko gauza ezberdinak erakutsi zizkiguten. Garaiko jantziak aritu zitzaizkigun, ezagutarazi zizkiguten, baita ideiak ere eman ere gurea egiteko orduan.

Honetaz aparte, behin zein jantzi egin nahi genuen erabaki eta gero, gauzatzeko laguntza eta josten ikastea ere gure eskura jarri zuen irakasleak. Baina ikastaro honek, jantzia nola egin ikasteko aukeraz aparte, jende asko eta ezberdinekin jartzen zaitu kontaktuan.

Adin ezberdineko pertsonak elkartu ginen, elkarrizketa politak sortuz. Komentario ugari eta oso bestelakoak izan genituen jardun, giro oso ona, giro polita sortuz.

Nolako da Ione Artola jostun irakasle gisa?

Oso irakasle ona da. Gauzak ondo egitea gustatzen zaio, eta hori nabari da. Nik asko ikasi dut berari esker. Nire lana berez bordatzea da, horretan banekien, baina orain loneri esker josten espezialista egin naiz. Manga bat nola josi jakin dezakezu, baina hori esplikatzeke gai izatea meritua handikoa da. Oso azalpen onak ematen ditu, berezia da irakasten.

Inoiz josi ez duen batentzat baliagarria izan al daiteke honelako ikastaroa?

Bai eta ez. Bai, lonak ondo irakasten duelako. Ez, aurreko urteko asmoa bakoitzak jantzi bat egitea zelako, eta azkenean denboraz larri ibili ginelako. Josten bagenekienak oso larri ibili ginen gure jantzia bukatze-



Traje osoak, gonak, eta mutil alkandora ere egin zuten aurreko ikastaroan.

ko, beraz, imajinatu ezer egiten ez zekitenak. Normalean, etxeko lanak bidaltzen zizkigun, beraz, hastapenetan zeudeneztat zailagoa zen etxean egin beharrekoak egiten lortzea. Baina azkenean, jantzi oso txukunak egin genituen guztiok.

Baserritar jantzi tradizionalak egin zenituzten, ezta?

Denetik egon zen. Bizpahiruk betiko jantzi tradizionalak egin zituzten, txuri-beltz horietakoa, baina gehienek koloretakoa egin genituen. Beste batzuk, gerruntze, txaketak, bainikazko atondurak... egin zituzten. Nik adibidez, bainikarekin ez nuen ezer egin, ez zidan denborarik eman horretan hasteko. Baina esan beharra dut, bainikarekin ibili zirenek, oso gauza politak egin zituztela. Nik gona egin nuen, orain oso jantziegia iruditzen zait, eta aurten, beste estilo batekoa egitea dut buruan.

Zertan oinarritu zineten jantziak egiteko?

Antolakuntzatik begiratuak zituzten garaiko ezberdinetako jantziak nolakoak ziren, nola egin. Hala ere, bakoitzak bere ideiak zituen. Oihalak erostera joaten zarenean, baserritarren

oihal dendak dituztenetara adibidez, garai ezberdinetako argazkiak dituzte eta erakutsi egiten dizkizuten, ideiak egiteko ere. Hala ere, nik uste bakoitzak nahiko argi geneukala ze jantzi edota atondu mota egin nahi genuen.

Josten jakiteak ze garrantzia du gaur egun?

Bakoitzaren arabera. Niretzako garrantzitsua da. Nik txikitatik gauza asko bizi izan ditudalako jostuntzarekin. Ikastaro honetan jende nahiko bildu gara josteko, eta horrek, nire txikitako garaia gogora-



Amaia aurreko urteko ikastaroan berak egindako jantziarekin pozik

razi dizkit. Amak bordatuak egiten zituen, eta gure etxeko sukalde handia zenez, han biltzen ziren izebak eta amak bakoitzak bere lana egiteko. Niri asko erakartzen dit bordatu edota josteko ekintzak, baina orokorrean nik uste ez duela zirrara asko pizten jendearengan.

Gure amonen abilezia galduko ote da?

Horretarako bidea hartu duela dirudi. Baina, oraindik, honetan jardutea gustuko dugun ni bezalako txoroak geratzen gara. Hala ere zail zamar

ikusten dut hauen biziraupena. Egun, lan guzti hauek mekanizatuak daude. Lehen gehienak azpialdeak konponatzen bagenekien, gaur egun ez. Dendak egiten digu, edota ibiltzearen poderioz zulatzen ditugunean, beste batzuegatik aldatzen ditugu.

Merez al du ikastaroak?

Dudarik gabe. Oso polita izan da esperientzia, egindako lana eta zer esan gehiagorik, nik aurten berriro errepikatuko dut. Soineko txukuna eta zuk zeuk egindakoa, aukera paregabea da. •

ERREKATXO JATETXEA

- Eguneko menua
- Ostinaletako menua 8 euro
- Asteburuko menua enkarguz

JAUNARTZE ETA BATAIOETAKO MENU BEREZIAK

Oria Etorbidea 4 • Tel.: 943 365557 • Lasarte-Oria



Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 7

10:00etan, Ostadar-Beasain (Infantilen Ohorezko maila) Michelinen.
11:30ean, Texas Lasartearra-Añorga (I. Jubenila) Michelinen.
13:15ean, Ostadar-Añorga (Emakumezko Erregionala) Michelinen.
15:30ean, Texas Lasartearra-Euskalduna (I. Erregionala) Michelinen.
17:15ean, Ostadar-Oiartzun (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelinen.

09:30ean, Añorga-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11) Rezola, Añorgan.
12:00etan, Usurbil-Ostadar (I. Kadetea) Harane, Usurbilen.
15:30ean, Kostkas M.B.- Ostadar (I. Jubenila) Matigoxotegi, Donostian.
18:00etan, Sanpedrotarra-Ostadar (Erregional Gorena) Trintxer, Trintxerpen.

Igandea 8

09:45ean, Ostadar-Lengokoak (Infantil txikiak, txapeldunen fasea) Michelinen.
11:00etan, Ostadar-Anaitasuna (Alebinak) Igartza, Beasainen.
11:15ean, Ostadar-Zarauz (Partehartze infantilak) Michelinen.

FUTBOL 7

Igandea 8

12:30ean, Maser Microelectronica-Spartak de Obelix (III. Maila) Ugaldetxo.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 7

17:45ean, Aldaz H.K.-Orioko taberna (Nazional B maila) Kiroldegian.

Igandea 8

11:00etan, Ceramicas Nogales Astigarraga-ISU leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Astigarragako kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelingo areto-futboleko gunean

Ostirala 6

20:30ean, Mingallon-Ilargi



Larunbata 7

09:15ean, Izarra-Epel
10:15ean, Okela-ISU Leihoak
11:15ean, Lekuona Mena-Buenetxea
12:15ean, Naiban-Morrison
13:15ean, Biyona-Goiz Argi
15:00etan, Ainhoa-Siglo XX
16:00etan, Danena-Oria krist.
17:00etan, Obelix-IOB H.K.

Igandea 8

10:00etan, Izkiñá-Tragoxka
11:00etan, Viña del Mar-Jalai

SASKIBALOA

Larunbata 7

16:00etan, Jalai-Internacional (Gizonezko seniorrak) Kiroldegian.



PILOTA

Larunbata 7

16:00etan, Añorga-Intza 2 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Michelinen.
16:00etan, Euskal Giroa-Intza 5 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Michelinen.
16:00etan, Urnieta 1-Intza 3 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Urnietan.
16:00etan, Oiarpe 1-Intza 6 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Urnietan.
16:00etan, Urnieta 2-Intza 1 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Urnietan.
16:00etan, Hernani 1-Intza 4 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Urnietan.
17:00etan, Intza 2-Behar Zana (eskuz banaka alebinak 2. Urtea) Villabonan.
17:00etan, Intza 3-Intxurre 1 (Eskuz banaka alebinak 2. Urtea) Villabonan.
17:30ean, Intza 1-Gazteleku 2 (Eskuz banaka alebinak 2. Urtea) Arrate, Andoainen.

Igandea 8

12:00etan, Lagunak-Intza (Eskuz banaka III. Seniorra) Elgoibarren.

SASKIBALOA

Igandea 8

Goizean, Behobia-Donostia lasterketan herritar ugarik parte hartuko du.

‘Behobia-Donostian parte hartzeko prest nago’

■ Igandean egingo da maratoi erdia. ■ 11:00etan aterako dira oinezkoak eta 10:25ean gurpildun aulkikoak

ITXASO MORENO

Patxi Fadrique lasarteoriatarak, kirolzale amorratua dugu eta aurten Behobia-Donostian lehenaldiz hartuko du parte. Donostiako krosa eta Lasarte-Oria Bai Krosa erabili behar zituen erdi-maratoia prestatzeko, baina azkenean, herriko krosean ateratzerik ez zuen izan, obrak zirela medio, asfaltaturik gabe zeudelako ibilbideko hainbat zati. Hala ere, bere burua ondo ikusi, eta asteburuan Behobian ikusiko dugu lasarteoriatarra.

Nola prestatu duzu Behobia-Donostia?

Egia esaten badut, ez dut ezer berezirik egin. Erabiliko dudana aulkia Lasarte-Oriako krosean erabili dudana izango da, beraz ezagutu egiten dut, eta horrek segurtatea ematen dit. Hori bai, aulkiko gurpilak aldatu behar izan ditut, aldatu behar izan dudenez ibilbidean zehar gurpileko arreak ere handiagoak behar dute. Nik kirol ugari egiten dut, egunero nabil zerbaitean, beraz, fondo aldeetik ezer berezirik egin gabe prestatzen ari naiz. Saskibaloiari, pilotari... aritzen naiz, beraz, nik uste dut prestatuta nagoela, indarrei dagokionez parte hartu ahal izateko.

Kros zalea zara?

Ni normalean ez naiz krosetan ibiltzen, Lasarteko krosetan hiru urte daramat parte hartzen, eta gero Gasteizko batean ere ibilia naiz. Donostian ospatu den 15 kilometrotako batean ere hartu dut parte eta bertan ondo ikusi naizenez, Behobia-Donostian parte hartuko dut. Nahiko gogorra da, baina fisikoki oso ondo aurkitzen naiz parte hartzeko.

Normalean herriko krosetan parte hartu izan duzu, aurten eronka berria, nola animatuko zenituzkete gurpildun aulkietan dauden pertsonak krosetan parte hartzeko?

Zaila ikusten dut benetako animuak eman ahal izatea. Izan ere, egongo da jende asko parte hartu nahiko duena, ondo pasatzen delako amateur moduan krosa hauek. Baina arazo handi batekin aurkitzen gara, aulki berezia behar izatea. Beraz, animatu dezaket jendea, baina aulki



Fadrique aurreko urteko Lasarte-Oria Bai! krosetan helmugaratzen.

hori ez baldin badu ezingo du parte hartu. Gainera, kirola praktikatzeko ez dutenentzat ez nieke ezer egin gabe krosetan parte hartzea aholkatuko, lehenengo beste kirol batzuetan aritzea esango nieke, izan ere, erabili beharreko aulkia-aren postura nahiko arraroa eta berezia da, beraz ohitu beharra dago, ondoren probaz disfrutatu ahal izateko.

Nolakoa izan zen herriko krosetan parte hartu zenuen lehenengo urte hori?

Jende guztiak aldapetan konfiantza ibiltzeko aholkatzen zidan, bertan abiadura handia hartzen delako eta beraz galgaz baliatzeko esaten zidaten. Kasu egin, eta oinezkoak segituan harrapatu ninduten, ondoren arazo gehiago suertatu zitzaizkidan. Jendea aurrean dugu, eta zu zure eritimoa mugatzen dute, ez dute ikusten zu atzetik zatozela eta espazio gehiago behar duzula.

Aulki bereziak lortzea zaila da?

Kemen elkarrekin alokairuan uzten ditu. Beste aukera bat erostea da, baina prezioa 3.000 euro inguru ibiltzen da. Beraz, lehenengo, probatu beharra dago inbertsio hori egin aurretik. Gainera dirutza hori aulki batean gastatzea ez dago denen esku. Momentu hauetan, federazioan krosetako eskola bat ipintzea pasatzen

ari gara, eta orduan aulkia erosi genituzke... baina momentuzko ideia bat da. Orain arte, krosa praktikatzeko aukera Kemen taldeak bakarrik eskaintzen du.

Behobia-Donostian parte hartzeko egoera fisiko onean aurkitzen zara, marka ona lortuko duzula espero duzu?

Ni ondo pasatzea ateratzen naiz. Ez naiz karrera guztietara joaten diren horietakoak, Lasarte-Oria Bai Krosetan adibidez, disfrutatzea ateratzen naiz. Urtetik urtera hobeto pasatzen dudalako, aulkia gehiago ezagutzen dudalako, izan ere, gehiagotan erabili dut. Ibiltzeko modua ere hobeto ezagutzen duzu... eta guzti horrek nire jomuga ahalbidetzen dit. Behobian gainera, helburu bezala amaitu ahal izatea dut. 21 kilometro dira proba honetan, eta normalean ez ditut hainbeste kilometrotako krosak egin, baina ondo pasatzea espero dut.

Aurten Behobian lehenengo aldiz hartuko duzu parte, urduri?

Urduritasun kutsua badut. Izan ere, nire lehenengo urtea da gurpildun aulkiekin parte hartuko dudala. Baina egia esanda, urduritasun gehiegirik gabe. Momentu honetan, urduritasun gehiena eguraldiak sortarazten dit. Eguraldi ona egingea baino ez dut espero. •

Egunero

Erakusketa

EUSKAL FONDOAREN erakusketa bihartik aurrera Manuel Lekuona Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 6

Dantza

Lasarte-Oria Dantzan 2009 egitasmoaren barruan, TONDO REDONDO emanaldia. Sarrera, 6 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean, 20:00etan.

Bideoforuma

LAS CARTAS DE ALOU filmarekin bideoforuma. Emakumeen Zentro Zibikoan, 16:30ean.

GAZTELANIAZ

Igande, 8

Zinea

HARRY POTTER Y EL SECRETO DEL PRINCIPE haurrentzako filma. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.

Astelehena, 9

Ipuin-kontalaria

PELO ANORGA ipuin-kontalariaren Ipuinaren ordua saioa 4, 5, eta 6 urteko haurrentzat. Kulturetxeko haurren liburategian, 18:00etan, EUSKARAZ.



Saharak emakume izena du

SAHARAK EMAKUME IZENA DU argazki erakusketa ikusi ahal izango da azaroa osoan zehar Mundu bat GK Eren eskutik.

2007ko irailaren 1etik 8ra, Marisol Ramirez, kazetari grafikoa, eta Teresa Burgui Mundu Bateko Garapenerako Hezkuntzako taldekidea, lehen aldiz egon ziren Saharako kanpamentuan, Tindoufen.

Bertan bizitakoa azaltzen dute erakusketa honetan, eta basamortuko lurralde horretan aurkitutako pertsoen buruz hitz egiten digute. Beraien helburua, kanpalekuetako emakumeen bizimoduaren berri ematea.

AZAROAN, EGUN OSOAN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Asteazkena, 11

Diaporama

KROAZIA ETA BOSNIARI buruz arituko dira Maialen Goikoe-txea, Mikel Olaiz, Asier Gorostegi eta Naika Zumeta. Jalgi kafe-antzikian, 21:30ean, EUSKARAZ.

Ostirala, 13

Antzerkia

THE... CON MUJERES antzezlan. Sarrera, doan. Manuel Lekuona Kulturetxean, 19:30ean.

GATELANIAZ

Djen emanaldia

ROCKSTEADY SKA, Jamaikako musika ipiniko du bideo emanaldiaren ondoren. Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan.

Igande, 15

Zinea

KIKA SUPERBRUJA Y EL LIBRO DE LOS HECHIZOS haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.

Asteartea, 17

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren Ipuinaren ordua saioa 7, 8, eta 9 urteko haurrentzat. Kulturetxeko haurren liburategian, 18:00etan, EUSKARAZ.

Asteazkena, 18

Hitzaldia

GIZAKIEN ARTEKO ERLAZIOA hitzaldia eskainiko du Helena San Pedrok, Nola hezi gure sema-alabak hitzaldi zikloaren barruan. Kulturetxean, 18:00etan.

Diaporama

TXINA BIZIKLETAZ izeneko diaporama eskainiko du Aitzol Etxeagoienek. Jalgi kafe-antzikian, 21:30ean, EUSKARAZ.

Osteguna, 19

Zinea

AL OTRO LADO filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,15 euro. Kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ

Ostirala, 20

Kontzertua

TXINTXARRI abesbatza. Kulturetxean, 19:30ean.

Kontzertua

R.S. FACTOR (Jazz) taldearen emanaldia. Kulturetxeko kafe-ategian, 20:00etan.

Aurkezpena

VIII. MULTIMUSIKALAREN aurkezpena eta ondoren Petti eta Arramazkaren kontzertuak. Jalgi, 21:00etan.

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturetxea

Manuel Lekuona kulturetxea
Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Haur baten zapata azaldu da

Urriaren 25ean ospatu zen Lasarte-Oria Bai! Kroseko egunean, haur txiki baten zapata marroia azaldu zen Jalgi kafe-antzikian. 3-6 hilabeteko haurrentzako zapata da. Galdu duenak Ttakuneko bulegoan jaso dezake.

Batxilergo tituluak

Lasarte-Oriako Institutuak jakin arazi nahi du 2008an bukatu zutenek, batxilergo tituluak jaso ditzaketela goizeko 9:00etatik 13:00ak bitartean. Norberak jaso behar du, bestela nortasun agiriaren fotokopiarekin jaso daitezke ere.

Buruzpeko Loteria

Sasoeta- Zumaburu herri ikastetxeko Buruzpe Guraso

Elkarteak salgai dauka dagoeneko Gabonetako loteria. Eskuratzeko elkartetik pasa daiteke asteazkenetan 15:00etatik 16:30etara.

Aterpeko loteria

Aterpeak, Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak, aurreko urteetan bezala Gabonetako loteria atera du. Loteria hartzeko interesa duten Aterpeko bazkideek, Zumaburu Iturbe Oinetakoak (Maixa) dendatik pasa daitezela jasotzera. Zorte on guztia!

Oztabideko loteria

Oztabide auzo-elkarteak Arranbide-Oztaraneko auzotarrei jakin arazten die eguberrikako loteria salgai dagoela. 19827 zenbakia da eta 3 euroko (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro)

loteriako partaidetzan eskatuko aukera izango duzue. Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta COVIRAN supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi ahal izango dituzue.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administratza gastuei aurre egiteko baliabide hau bakarrik daukala elkarteak.

Igerileku txikia itxia

Haurtxoekin antolatuta diren igeriketa ikastaroak baldintza egokietan garatu daitezten, larunbatetan, goizeko 10:30ak eta 11:00ak bitartean igerileku txikia erabiltzaile ororentzat itxita egongo da.

Ostadar K.F.-ko Loteria

Ostadar Kirol Fundazioak

Gabonetako Loteriako txartelak ditu salgai. Bakoitzak 2,5 euro balio ditu eta horietatik 0,50 euro elkartearentzat dira.

Interesa duenak kirol elkarteke egoitzara hurbiltzea besterik ez du, Geltoki kaleko 25. zenbakira.

Ostadar K.F.-ko ordutegia

Ostadar K.F.-k jakin arazten du, elkarteke egoitza arratsaldez soilik dagoela irekia, 16:00etatik 20:00etara.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

txintxarri@ttakun.com

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Osasun jardunaldien balantze positiboa

■ Herritarren parte-hartzea eta dibulgazio hitzaldiek piztu duten interesa azpimarratzen dira

TXINTXARRI

Lehenengo asteen burutu ziren XVII. Osasun Jardunaldietako irakurketa egin du Ingurumen, Kontsumo, Merkataritza eta Sanitateko Departamentuak.

Ikusle kopurua handia izan ez bada ere, balantze positiboa egiten dute jardunaldien antolakuntzaz arduratzen den sailak.

Izan ere, hitzaldietara hurbildutako herritarren parte-hartzea eta dibulgaziozko hitzaldiek piztu duten interesa handia izan baita.

“Aurtengo programazioak iaz uztartutako ildoari jarraitu dio, eta populazioaren sektore handi batek pairatzen ez dituen gaixotasunei eman zaie lekua,” azpimarratu dute.

Horregatik, “herritarrek gai horiei buruz duten ezjakintasunak justifikatzen du ohiturazko Jardunaldi hauetan jorratzea,” jakitera eman dute antolatzaileek.



XVII. Osasun jardunaldietara hurbildu den herritar kopurua murrizta izan den arren, haien parte-hartzea handia izan da.

Era honetara, sailetik aipatzen den bezala, “garrantzia eman zaio teknologia berrienganako adikzioari, batik bat gazteen artean gertatzen

denari, baita osasun psikiko eta fisikorako ekar ditzakeen ondorioei ere”.

Bestalde, eta urtero bezala, minbiziaren gaian gehiago

sakundu da. Honela, bularreko minbizi, zein kolonekoaren diagnostiko goiztiarren garrantzia azpimarratu da aurtun.

Koloneko minbiziaren kasuan, Lasarte-Oriako Osasun zentroan martxan dagoen diagnostikoko estudioarekin lotu zen. Izan ere, emaitza paregabeak izan ditu beste udalerrien alderatuta.

Era berean, Ingurumen, Kontsumo, Merkataritza eta Sanitateko sailak uste du, zainzailearen bizi-kalitatea hobetzeko aholkuek lan hori egiten duten pertsonak balio-esteko balio izan dutela eta zainzaileek, emakumezkoak gehienbat, jakin dezaten zein baliabide dauzkaten bizi-kalitatea hobetzeko, baita pertsona zainduarena ere.

Honetaz gain, jardunaldietako hitzaldietako bakoitzak, bukaeran, debate eta galderatxanda aberasgarriak sorrazi dituela azpimarratzen dute antolatzaileek eta, era berean, horrek hizlariei eta herritarren artean komunikazio-zubiak ezartzeko balio izan duela. •



www.gipuzkoa.net/san-marcos

ERAKUSKETAREN EGUTEGIA

| HERRIA | EGUNA | LEKUA |
|--------------|--|--|
| DONOSTIA | Urriak 24 - 29 | Urdaneta kalea Koldo Mitxelena Kulturunearen ondoan |
| OIARTZUN | Urriak 30 - azaroak 4 | Done Eztebe plaza |
| HERNANI | Urriak 31 - azaroak 5 | Gudarien plaza |
| LEZO | Azaroak 6 - 10 | Euskal Herria plaza |
| ASTIGARRAGA | Azaroak 6 - 11 | Barandiaran plaza |
| PASAI | Azaroak 11 - 16 | Gure Zumardia plaza |
| LASARTE-ORIA | Azaroak 12 - 17 | Andatza plaza |
| USURBIL | Azaroak 17 - 22 | Dema plaza |
| URNIETA | Azaroak 18 - 23 | San Juan plaza |
| ERRETERIA | Azaroak 24 - 29 Igando arratsaldea itxita | Gamon zumardia |

Informazio-gunearen ordutegia

Larunbata - igandea: 11:00 - 14:00 / 17:00 - 19:00

Astegunak: 16:00 - 19:30



Erakusketa bat baino gehiago

Ez galdu San Markos Mankomunitateko 10 udalerrietan izango den erakusketa ibiltaria. Erretiratutako edukiontzia berrerrabiliz 26 artistek egindako artelanak izango dira ikusgai. Gainera, Informazio-gunean hezitzaile talde batek gaikako bilketa eta birziklaketa inguruko informazioa eskainiko dizu, izan ditzakezun zalantzak argituz.



ECOVIDRIO

